

B27

Eleiçara juen oy naiz...

Poema honetakoak erabat maitemindurik dagoen mutilaren gogoetak dira. Hiru parte bereizten dira poeman: Lehenengoan (1-12 bertso-lerroak), neska ezin duela burutik kendu adierazteko, mezako atalak hartzen ditu gidari eta esaten du, meza-kontuei adi izan beharrean, neska duela beti gogoan. Bigarren partean, 13-20 bertso-lerroetan, argitzen du ez dakiela neskak bera maite duen ala ez. Azkenik, 21-26 bertso-lerroetan, maitasunak sortzen duen egonezinaren adierazgarriak zerrendatzen ditu.

Pareatu-segida honetan, bakoitiak bederatzi (edo zortzi) silabako libreak dira, errimarik gabeak, eta bikoitiak *-tu/-du* errima duten zortzi (edo bederatzi, eta are zazpi) silabakoak.

[1204r] Eleiçara juen¹ oy² naiz;
 eguin oy det³ becatu:⁴
 Avemaria⁵ asi baice,⁶
 ecin oy det notatu;⁷

¹ *juen*: Eskuizkribuan *joan* forma agertzen da beste guztietan. Tradizio idatzian ere ez dugu beste lekukotasunik aurkitu, XX. mendera arte.

² *oy*: ‘ohi’; Lazarragaren eskuizkribuan, hamabi aldiz ulertu dugu *oy* / *oi* partikulak ‘ohi’ adierazten duela: *egon oi da* (A14: 46), *oy ninduan penadu* (B12: 4), *Gabaz-egunaz oy nituan / aren atcak rondadu* (B12: 5-6), *nic jagui bear oy dot oçac ilic* (B15: 48) eta *Bezpera artan gentez oy da / ayuntamentu andia* (B22: 19-20), *Eleiçara juen oy naiz, / eguin oy det becatu* (B27: 1-2), *Avemaria asi baice, / ecin oy det notatu* (B27: 3-4), *ofrendara dianean / ondo oy det miratu* (B27: 9-10), *Sperançaç bici oy n[aiç] / erri oneçaç atean; / sperancea galdu oy det / errira natorrenean* (B28: 7-10).

³ *det*: *de-* moldeko **edun* aditzaren formak ez dira asko eskuizkribuan (eta gehienak Estibaliz Sasiolakoaren poemetan agertzen dira): *det* (A5: 26, B27: 2, B27: 4, B27: 10, B28: 9, B29: 4), *dedan* (B30: 18), *badeçu* (A16: 70, A28: 168), *deçun* (A26: 90), *estet* (B29: 7) . Gutxi dira, orobat, *du-* eta *deu-* moldeetakoak.

⁴ *becatu*: Landuccik ere *becatu* eta *becatari* ditu.

⁵ *Avemaria*: Meza aurretik esaten zen otoiça da.

⁶ *baice*: ‘baizen, baizik; bezain laster’; eskuizkribuan *baxe* eta *baize* formak agertzen dira (bakoitza zazpi aldiz, eta behin *baje*). Formari buruz, cf. *OEH*, s.v. *baizen*: “La variante *baxen* (<-ix-> a veces en fray Bartolomé) es propia de la tradición vizcaína; no se encuentra *baizen* en textos de este dialecto hasta el s. XX. Las formas sin *-n* se documentan en textos meridionales antiguos: *baize* en un texto alavés del s. XV, en una carta de Azpeitia del XVII y en el Catecismo de Cegama; *baxe* y *baxin* en Micoleta; *baizin* en *BBizk*”.

⁷ *notatu*: ‘(hari, Abemariari) adi izan’; eskuizkribuan zehar, mailegu erromanikoetan *-adu* bukaera hartzen du partizipioak (salbuespen bakan batzuekin: *armatu-*, *pagatu-*, *gumutatu*); poema honetan (denak errima eginez) eta B31 poeman, ordea, *-atu* bukaera hartzen dute: *notatu* (B27: 4), *miratu* (B27:

liburuan bere jarri oi naiz,	5
begui neureoc ⁸ lausotu;	
fraydea predicaçen jarri,	
icic ecin aditu;	
ofrendara ⁹ dianean ¹⁰	
ondo oy det miratu; ¹¹	10
sagara ¹² gora dianean,	
amore lindeaz oroitu.	
Amore linda galantorrec	
gogoan oy ¹³ ni banindu!	
Lagunoc ¹⁴ bayez diostae,	15
neuronec esin ¹⁵ sinistu.	

10), *largatu* (B27: 20), *consolatu* (B27: 21), *amoratu* (B27: 22), *asentatu* (B27: 23), *alvergatu* (B27: 24), *canbiatu* (B31: 7). Horietako bi badira eskuizkribuan, *-adu* bukaerarekin: *consoladu* (AL: 1182r), *desconsoladuric* (B21: 42), *(en)amoradu-* (passim). Estibaliz Sasiolakoaren gainerako poemetan ez dago ez *-atu* ez *-adu* bukaerako partizipiorik.

⁸ *begui neureoc*: ‘neure begiok’; izenlaguna eskuinetara dago. Hitz-ordena hori sei aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan: *Ama enea seme бага / çuc ifinico al doçu* (AL: 1144r), *Ama eneaen seme bagueaz / oy çuc cer probechu doçu?* (AL: 1144r), *Silviac / damu andia oy eben artu / bioz berean, menetan* (AL: 1147r), *ama bereaen* (A25: 32), *begui neureoc lausotu* (B27: 6) eta *Laztan enea* (B28: 1).

⁹ *ofrendara*: Mezaren erdi aldeko partea da *ofrenda* ‘eskaintza’.

¹⁰ *dianean*: ‘doanean’; *dia* ‘doa’ (cf. baita B27: 11 ere) aditza beste autore batzuetan ere aurkitzen da, gipuzkeraz: “Aquel va, *hura doa, dia, dijoa* [...] Aquellos van, *aec doaz, dijoaz, diaz*” (Larramendi, 1745, s.v. *ir*), “Belen inguruco arzaic [...] alcar arturic, *diazel*a ongui etorria ematera” (Munibe, 1762, *Gavon Sariac*, Irugarren otsaldia), “Ostia sentitcean, / oy *dia* torrera / sacristauba gabean / campayac jotera” (Munibe, 1764, *El borracho burlado*, Escena IV), “Alako baten bada *dia* neskamea beste toki batera” (Mogel, XVIII. mendea, *Ipuinak*), etab.

¹¹ *miratu*: ‘begiratu’.

¹² *sagara*: ‘ostia’, ziur aski; berez, apaizak ostia gora igotzen duen uneari esaten zaio *sagara*. Kontsakrazio-unean jotzen zen kanpaiaren hotsari ere *sagara* esaten zitzaion, eta kanpaiari berari *sagara-kanpaia*. Aipagarria da, bestalde, artikulurik gabe agertzea aditz iragangaitz baten (*dianean*) subjektu funtzioan, izen zenbakarria izanik, gainera; bakanak dirateke horrelako adibideak euskal testuetan, besterik bada. Aintzat hartzekoa da bestela ere esanahia ez dela arrunta (*OEHK* dakartzan lekukotasunei begira, guk proposatzen dugun ‘ostia’ esanahia bakarra da euskal testu guztietan); agian adiera berezitu horren bidetik uler genezake artikulu falta, *sagara* izen berezi gisa edo ariko balitz bezala; ez da, dena den, kontu garbia.

¹³ *oy*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak, bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera, baina hemen oso-osoan esklamaziozkoa da.

¹⁴ *lagunoc*: ‘ene lagunok’. Hemen artikulu hurbila edute-balio jakin batekin batera doa, *diostae* aditzean ere kodetzen duelarik lehenengo pertsonako erreferentea: cf. *eta dacusqueçun gauçagayti ez beguioc espilurean quendu* ‘zuen begiok’ (AL: 1153v).

Neuronec esin neyo,¹⁶ baya

eguingo digot mandatu¹⁷

arençat jayo ninçala ta

enaguiala largatu.¹⁸

20

Es bisteaç consolatu,

ez egonaç amonatu,¹⁹

ez mayan asentatu,²⁰

ez oean alvergatu.²¹

¹⁵ *esin*: Estibaliz Sasiolakoaren poemez osaturiko eranskinean, ugari dira txistukarien nahasketak: *esin* (B27: 16, B27: 17), *es* (B27: 21), *estaguiçula* (B27: 25), *sure* (B28: 2), *çaytesque* (B28: 3), *sacusquedan* (B28: 4), *estaqustanean* (B29: 5), *estet* (B29: 7), *lastanarequin* (B30: 3), *equzten* (B30: 25), *gustiac* (B31: 3), *naguci* (B31: 4), *equci* (B31: 6), *lastan* (B33: 5), *flordeliçac* (B33: 13), *joci* (B33: 15), *Guipuscoaco* (B33: 18), *Gastelaco* (B33: 20), *gustiac* (B33: 35). Eskuizkribuko testu nagusian, berriz, soilik *desesperanças* (A1: 46) eta *esperanças* (A17: 31) aurkitu ditugu, eta Martin Lopez Bikuñaren poemetan *negarres* (B8: 4) eta *bearres* (B8: 8), instrumentalaren markaren lekuan <-s> txistukari apikaria dutela.

¹⁶ *neyo*: ‘egin niezaioke’; *egin* aditzaren forma trinkoa. Erro honetako adizkiak askotan -g-rekin kausitzen ditugu eskuizkribuan: *neguian* (A23: 23, B12: 22), *neguianean* (B12: 14), *neguiala* (B16: 106), etab.; baina badira g gabeko formak testuan zehar: *eyoen* (AL: 1147v), *eyano* (AL: 1153r), *leyan* (A26: 32)...

¹⁷ *eguingo digot mandatu*: ‘adieraziko diot beste norbaiten bitartez’.

digot: ‘diot’. Eskuizkribuan -g- antihiatikoa duten beste adizki batzuk agertzen dira: *digoçu* (B28: 13), Sasiolakoarenetan, eta *nagon* (A7: 71, A21: 5, A21: 17, A21: 25, B21: 97), Lazarragaren poemetan. Bestalde, horrelako formak ez dira inola ere ezezagunak testu zaharretan, bereziki gipuzkerazkoetan: “Guztioec **digoe** borondatez seguicen” (*Bretainiako kanta*), “bere ese guztiak ofrezizen **digoe**la egunean bein oraziorean bazuk” (Azkoitiko ordenantzak, 1614), “memorian gorde debozio emaiten **digon** puntu batreanbat” (*ibid.*), “esan bear **digoe** Aytari edo perfectuari kausea” (*ibid.*), “Jaungoikoari erreguzen **digoe**la” (*ibid.*), “eta ezteve porfiadu bear baña bai esan euren parezera eskazen **digonean** lanezarekin” (*ibid.*); “eta oen contra eutci **cigon** Crutceari virtute andia gueure defensaraco, eta amparoraco”, (Otxo Arin, 1713, *Doctrina cristianaren explicacioa*), “gueuere animari vizitza ematen **digona**” (*ibid.*), etab.; “baña zer esango **digot**, oñazez, damuz, miñez gañez egiñik badago? Graziaren eskatzeak gogoratuko **digon** bere dolore guzien asiera ta jaiotza” (Larramendi, 1737, *Azkoitiko sermoia*), “Otsegingo ote **digot** Aita eternoari?” (*ibid.*), “zergatik bada bere izena aitatu ta esan **etzigon** Aue Maria, ta zergatik ezkutatu **zigon** izen eder au?” (*ibid.*), etab.

¹⁸ *enaguiala largatu*: ‘ez nagiala laga, ez nazala utz’.

¹⁹ *amonatu*: ‘maitemindu’. Aipagarria da aditz-partizipio gisa ageri den honetan -atu bukaera hartzen duela (cf. poema bereko *alvergatu*, *asentatu*, *largatu*); aldiz, beheraxeago dagoen *amoadu* forma (B27: 26) adjektibo gisa ageri da. Eskuizkribuan hitz hau ia beti adjektibo funtzioan ageri da, partizipio interpretazioa izan lezakeen kasu batean izan ezik: *Ni çugaz amoaduagaiti / eztaucat nic bearri* (A16: 9); adibide honetan aditz gisa interpreta baldin badaiteke ere -adu bukaera hartzen du.

²⁰ *asentatu*: ‘eseri’.

²¹ *alvergatu*: ‘babestu’; cf. *DAut* s.v. *albergar*: “ALBERGAR. v.n. Y ALBERGARSE. v.r. Recogerse, abrigarse, ponerse a cubierto [...]”. Oro har, uste dugu lerro hauetan (B27: 21-24) maitalearen ezinegona adierazten duela (ez du lortzen maitea ikustearekin kontsolatzea, ez harekin egonez maitemintzea, ez mahaiari eseri eta lasai egotea, ez ohearen babesa lortzea).

Jaun Ceruco, estaguiçu[la²²
 guiçona onein²³ amorad[u.²⁴

25

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

1 Eleiçara] esk. *Eleicara*. **5** jarri] esk. *jari*. **9** dianean] esk. *dianea*. **13** galantorrec] esk. *galantorec*. **18** digot] aurrean *ja-*, tatxatuta, ziurrenik beheko lerroarekin nahasia. **19** arençat] esk. *arencat*. || ninçala] esk. *ninçala*. **20** largatu] aurrean *g* tatxaturik. **21** bisteaç] esk. *bisteac*. **22** egonaç] esk. *egonac*. **25** Ceruco] eskuizkribuan beste zerbait dago atzean, agian *-a* gero erantsia. || estaguiçula] *-a* ez da ikusten, orria eskuineko aldetik apurtuta dagoelako. **26** guiçona] ondoren letra bat tatxaturik (agian *u*): *guiconau* izan liteke. || amoradu] *-u* ez da ikusten, orria eskuineko aldetik apurtuta dagoelako. .

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B27 – Eleiçara juen oy naiz...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago

²² *estaguiçu[la*: ‘ez dagizula, ez dezazula egin’; *egin* aditzaren forma trinkoa da.

²³ *onein*: ‘honen, hain’; hiru graduko adberbioa dago eskuizkribuan: *oneyn/onein, orreyn/orrein, ayn/ain*. Cf.: *oneyn cureldo tratadu* (AL: 1151r), *ene peneau oneyn andia dan azquero* (AL: 1152r), *estaguiçu[la] / guiçona onein amorad[u]* (B27: 25-26); *orreyn cureldo trataetan* (AL: 1152r), *orrein gaxqui* (AL: 1145v); *orrein curela* (A17: 34), *eneçat orrein gogor* (A17: 40), *orrein cruel içaten enegana* (A17: 67); *ain furia andiaz* (AL: 1142r), *urten eben ain laster* (AL: 1143r), *ain aguiz* (AL: 1143r), *ain cruelmente* (AL: 1143r) eta *passim*.

²⁴ *amorad[u*: ‘maitabera’.